

Argitaratzailea: Urola-Kostako Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN: 1697-8587
Zuzendaria: Nerea Uranga.
Egoitza nagusia: Zarautz. Araba kalea 25, 20800. 943 89 00 17. **Azpeitia.** Perez Arregi 1, behe, 20730. 943 81 38 41.
Posta elektronikoa: urolakosta@hitza.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Kudeatzailea: Uxua Ostolaza.
Publizitatea: Urola Kostak: 673-699 095. publiuro-la@hitza.eus.
Zarautz: 607-498 728. 607-615239. zarautz@hitza.eus.
Orio-Aia: 607-498 723. orio@hitza.eus. **Zumaia-Getaria:** 607-498 723. zumaia@hitza.eus. **Azpeitia:** 607-498 725. azpeitia@hitza.eus. **Azkoitia:** 607-498 727. azkoitia@hitza.eus. **Zestoa-Alzarnazabal-Errezil-Beizama:** 607-498 727. zestoa@hitza.eus.

Urola-Kostako Hedabideak S.L.ko kideak:



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (galantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
902 82 02 01



Temperatura
V 18°
A 9°

Mareak
 Itsasgora 11:52
 Metroak 3:35
 Itsasbehera 05:24-17:49
 Metroak 1:86-1:82

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, ostirala

Bertsolaritza

Azkoitia. Maiatzeko Lorak bertso saioa Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Eneritz Artetxe eta Unai Izagirrekin, 22:00etan, On Bosco aretoan.

Jaiak

Zarautz. Santa Marina jaiak. Egitarau berezia atera dute.

Literatura

Zarautz. Salbatore Mitxelena lehiaketako sari banaketa, 19:00etan, Modelo aretoan.

Musika

Azkoitia. Ane Leux eta Izaroren saioa, 22:00etan, Elkargunean.

Azpeitia. Bizitza kantu bat da emanaldia Juan Antxieta Musika Eskolaren eskutik, 18:00etan, Sanagustin kulturunean.

Getaria. Daikiri eta Killerkume, 22:30ean, gaztetxean.

Zinema

Azkoitia. Caballo dinero filma, 22:00etan, Baztartxo zinemari.

Azpeitia. El circulo filma, 22:00etan, Soreasu antzokian.

Bihar, larunbata

Musika

Azkoitia. XXVI. Udaberriko musikaldiaren barruan, Donostiako Orfeo Txiki eta Pala de la Musica abesbatzen emanaldia, 18:30ean, Santakutz komentuan.

Zarautz. Kunst laukotearen kontzertua, 17:30ean, Modelon.

Zumaia. Frank Blackfield Band, 20:00etan, Itzurun tabernan.

Topaketa

Zumaia. Edoskitzearen inguru-ko talde irekiaren topaketa, 11:00etan, Brankan.

Zinema

Azkoitia. El circulo filma, 22:00etan, Baztartxo zinemari.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Publierreportajea

Iraunkortasunean hezi eta hazi

Eskolako Agenda 21 heziketa programaren bidez, ikasleek iraunkortasuna bultzateko proposamenak egin ohi dituzte, udaleko erabakietan modu aktiboan parte hartuz.

Garapen iraunkorreko ingurumen hezkuntza lantzeko programa da Eskolako Agenda 21. Komunitatearen parte hartzea du oinarri, eta herri bakoitzeko garapen iraunkorra bultzatzea du helburu. Horren bidez, Zarautzko ikastetxe guztietako askotariko mailtako ikasleek herriko nahiz ikastetxeetako ingurumenaren kalitatea aztertzen dute, eta hori hobetzeko proposamenak egiten dituzte. Modu horretan, Oteitza Lizeoko, Lizardiko, Orokieta, La Salleko, Salbatore Mitxelena eta Antonianoko gaztetxoek udaleko erabakietan modu aktiboan hartzen dute parte.

Horretarako, ikasturte bakoitzean gai jakin bana lantzen dute ikastetxe guztietan, Araziren laguntzarekin. Ingurumen egoeraren diagnostikoa egiten dute lehenbizi, eta hori hobetzeko proposamenak finkatzen dituzte. Apirillean, ikastetxeen arteko foroa egiten dute. Bertan, zentro bakoitzeko ikasleen ordezkariak euren eskolan egindako diagnostikoa aurkezten dute, eta, denon artean, egoera hobetzeko bildutako proposamenen artean lehentasunak finkatzen dituzte.

Foroan adostutakoak udal arduradunekin partekatzen dituzte gerora, maiatzean egin ohi duten Eskolako Agenda 21eko udalbatzar berezian. Era berean, politikari zein udal teknikariak ikasleen proposamenei lotuta udalal abian dituen edota abian jartzekoak diren ekimenen berri eman ohi diete. Hurrengo ikasturtean, otsaila aldera, berriz bilduz dira politikariak eta ikasleak, urbetete lehenago egindako proposamenak zein egoeretan dauden azaltzeko, gaiari jarraipena emate aldera.

Tokian tokikoa

2002-2003 ikasturtean hasi ziren Eskolako Agenda 21 egitasmoa lantzen Zarautzen, eta ondoren,



Hainbat proposamen aurkeztu zituzten ikasleek Eskolako Agenda 21eko udalbatzarrean. HITZA

2005-2006 inguruan bide bera zabaldu zuten eskualdeko beste herriek. 2005az geroztik Urola Kostako Udal Elkarteak koordinatzen du Eskolako Agenda 21a.

Denbora horretan, askotariko gaiak landu izan dituzte herriko ikasleek, guztiak ingurumenaren zainzarekin lotuta. Aurten, ekitea eta klima aldaketa izan dituzte ardatz. Gaiak aztertu, proposamenak egin eta ikasleen foroan lehentasunak finkatu ostean, herenegun ikusi ahal izan zuten ikasleek ikasturtean zehar jorratutakoaren emaitza, Eskolako Agenda 21eko udalbatzar berezian.

Asko izan dira ikasleek udal ordezkariak aurkeztutako proposamenak eta konpromisoak. Horien artean bat, plastikozko poltsak murriztearena. Kutsagarriak izaki, horiek ordezkatzeko proposatu zuten, eta horien partez oihalezkoak erabiltzea, orgekin batera. Horri lotuta, hainbat kanpaina bideratu ditu udalak, besteak beste, harategi zein arraindegitan *tupper*-ak erabiltzeko. Hala ere, udalak proposamen horretan sakontzeko konpromisoa hartu zuen, hala nola,

Murkil dendarien elkartarekin elkarlanean.

Bestalde, herriko merkataritza bultzatze aldera, hainbat ekimen proposatu zituzten ikasleek, erosketak herrian egiteko kanpainak martxan jartzea eta horretarako erosotasunak eskaintzea, kasu. Eurek kanpainen

Herenegun goizean egin zuten Eskolako Agenda 21eko udalbatzar berezia

informazioa etxekoekin partekatzeko eta herriko dendetan erosteko konpromisoa erakutsi zuten. Udal ordezkariak jakinarazi zieten duela gutxi jarri dela abian *Zarautzen buy!* ekimena, baita *Merkatutik zuretzat* zikloa ere; azken hori garailan garaioko eta bertako produktuak ezagutzeko eta horiek nola prestatu daitezkeen ikasteko, Merkatu plaza indartuz.

Garraio publikoa eta LEDak Mugikortasunari lotuta, Zarautzen garraio publikoak ahalik eta gutxienez kutsatzeko autobus

elektrikoak erosteko proposatu zuten. Ikasleak garraio publikoa gehiago erabiltzera konprometitu ziren. Ordezkaritza politikoko jakinarazi zuten udalak dagoeneko badituela auto hibridoak, eta asmoa dela aurrera begira gehiago eskuratzea. Era berean, auto hibridoak duten herritarrei hobariak eskaintzen dizkietela adierazi zuten. Gainera, jakinarazi zuten ekainaren Setik aurrera autobusaren 3. linea jarriko dutela martxan, herriko beste hainbat guneetara ere heltzeko, auto partikularrak erabiltzeko beharrik egon ez dadin.

Kutsadura are gehiago murrizteko, fluoreszenteak beharrezkoak, LED bonbillak erabiltzeko proposamena ere egin zuten. Fluoreszenteak erre ahala, LED motakoekin ordezkatzeko konpromisoa hartu zuten, era berean. Udal ordezkariak nabarmendu zuten udala bide publikoko argiteria aldatzen ari dela, ohikoak LED motakoa bonbilladunekin ordezkatzeko. Aditza eman zutenaren arabera, hainbat guneetan LED argiteria martxan dago, eta etorkizunera begira zabaltzeko asmoa dute.